



HAURRAK ETA MUSIKA:

Ikasten eta irakasten

HAURRAK ETA MUSIKA

Adina: HHko bigarren zikloa, 3-6 urte.

Saioak: aurkezten diren sarrerako bloke eta lan espezifikoko atalen edukiak osatu arte, hezitzaileak hautatzen duen saio kopurua.

Gutxieneko saio kopurua: 10 saio (sarrera, lan espezifikoa eta amaiera-bloke bakoitzeko jarduera bana).

Saio kopuru egokia: "lan espezifikoa" blokean proposatzen diren jarduerak osatu edo edukiak barneratu arte.

Saioen iraupen proposamena: 45 min.

Proposamenaren justifikazioa:

Haur Hezkuntzako adin-tarte honetan haurrak bere ingurunean kokatzen hasten dira, baina horretarako garrantzitsua da lehendabizi beren burua ezagutzea. Bide horretan, gorputzeko atal desberdinak ezagutzeko musika, abestiak eta mugimenduak erabiltzea lagungarria izango da.

Horrela, alde batetik haurren nortasuna eta autonomia pertsonala garatzen laguntzeko jarduerak egingo ditugu haurrak bere buruaz duen irudia eraikitzen lagunduz.

Bestetik, adin-tarte hauetan behar beharrezkoak diren mugimenduak eta jolasak izango ditugu lagun, haurraren garapenean hain garrantzitsua den psikomotrizitatea lantzeko.

Landuko diren konpetentziak:**A. Zeharkako konpetentziak:**

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

Elkarbizitzarako konpetentzia

Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia

B. Diziplina-konpetentziak:

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia

Matematika, zientzia eta

teknologiarako kompetentzia

Kultura humanistikorako eta artistikorako kompetentzia.

Mugimendurako kompetentzia

Helburu didaktikoak:

1. Banaka zein taldeka aritzea
2. Abestuz eta dantzatuz ongi pasatzea
3. Psikomotrizitatea lantzea
4. Komunikazioa lantzea
5. Gorputzeko atalak ezagutu eta lantzea
6. Haurrengan konfiantza-giroa sortzea

Edukiak:

- Gorputzeko atalen inguruko asmakizunak
- Ezagutzen ditugun gorputzeko atalak zenbatzea eta identifikatzea
- Aipatu ohi diren gorputzeko atalez gain beste batzuk deskubritzeko jarduerak
- Psikomotrizitatea lantzeko mugimenduak
- Dantza
- Abestiak

Jardueren sekuentzia:

A. Hasierako fasea:	1. atala (Tximu)
B.Sarrera eta testu inguruan jartzea:	2. 3. 4. atalak
C. Gauzatze-fasea:	5. 6. 7. 8. atalak
D. Amaierako fasea:	9. 10. 11. atalak
E. Ebaluazio-fasea:	

Material didaktiko honetan proposatzen diren edukiak jardueren sekuentziari jarraituz ordenatuta azaltzen dira. Horrela, irakasle edo hezitzaileak bere ikasleen, beharren edo jakin-minaren arabera antolatu ahal izango ditu saioak hainbat konbinazioen artean.

Lehenengo blokean proposatzen den ekintza saioari hasiera emango dion ekintza izango da, Tximu pertsonaia nagusiak ongi etorria emango baitigu eta ondoren egingo den jardueran sartzen lagundu. Horrek ikasleen artean ohitura bat

sortuko du, Tximu azaltzen den bakoitzean musikarekin jolastu eta gozatzera doazela antzemango baitute.

Saioen hasierako jarduera modura eta ondoren landuko den edukiaren hurbiltze modura 2, 3 eta 4 bloketako edukiak izango ditugu aukeran. Musika egin, entzumena zorroztu, eta azken finean horrekin guztiarekin ikasi eta jolasteko, gure barnetik hasita (adibidez “Nire Gorputza Deskubritzen” edukia) gure burua lasaituko dugu (adibidez “Lasaitzen” edukia), eta inguratzen gaituen inguruneaz jabe egin behar baitugu (adibidez “Soinudun Ingurunea” edukia).

Behin ikasleak horretarako prest daudela, hezitzaileak hobesten dituen edukiak lantzeko edo barneratzeko atala aukeratuko da. Horretarako izango ditugu “Lan Espezifikoa”, “Kontu Kontari”, “Entzunaldiak” eta “Soinuen Parametroak”. Atal horietako bakoitzak eduki desberdinak, baina era berean beren artean osagarriak direnak lantzeko aukera emango digute.

Azkenik, egindako lan guztiaren ondoren amaiera-fasea. Horretan, aurretik egindako lanaren araberako jarduera bat aukeratuko dugu. Ikasleak aurrez oso adi eta kontzentratuta eduki dituen ekintza batean aritu badira, “Dantzara” edo “Jolasten” blokeak hauta daitezke bukaerarako; baina, aldiz, oso mugituta aritu badira, “Erlaxapena” izan daiteke aukera egokia.

Jarraian bloke hauekin osatutako saio-adibidea aurkeztuko da:

- ✓ Tximu
- ✓ Nire gorputza deskubritzen
- ✓ Entzunaldiak
- ✓ Erlaxatzea

A. HASIERAKO FASEA

Opari handia da gure txikiekin lan egin eta elkarrekin musikaz gozatzea. Hori horrela izan dadin, aurkezten diren saioen egiturak, ahal den neurrian behintzat, aldaezina izan behar du, bere egitura eta antolaketa mantendu behar dira. Aldatzen dena saioak dituen ariketak dira.

Saioaren hasiera eta amaiera oso garrantzitsuak dira, lehenengoak haurtxoari musikarekin jolasean hasiko dela jakinaraziko baitio eta bigarrenak saioa bukatu dela. Horretarako saioei sarrerako abestiarekin emango zaie hasiera, Tximuren abestiarekin hain zuzen ere. Horrela, haurrek jakingo dute egitera goazen jarduerak musikarekin zerikusia duela.

Horrez gain, Tximu izango denez gure gidaria eta laguntzailea jarduera bakoitzean, haren aurkezpena eta agurra garrantzitsuak izango dira. Saio bakoitzari abestiarekin emango diogu hasiera:

“Musikarekin jolasten gara, abentura asko ... 🎵🎵🎵”

B. SARRERA eta TESTUINGURUAN JARTZEA

Landuko dugun gorputz atal bakoitzeko, aurretiaz hurrek zer dakiten jakingo dugu. Horretarako, galderak, askak edota jolasak erabiliko ditugu. Izan ere, ondoren egitera goazen jarduera hobeto bideratzeko, lagungarri egingo baitzaigu informazio hori.

- Zenbat gorputzeko atal ezagutzen dituzue?
- Zein dira?
- Zenbat begi dauzkagu? Eta zenbat behatz?

Era berean, Tximu gure laguntzaileak ere lan horretan lagunduko digu, jarduera bakoitzean eta proposatzen diren atal desberdinei buruz galderak eginez. Zenbait aukera:

3.2. ILEA (asmakizunaren bidez)

- Egunon musikariok! Primeran egongo zaretela espero dut ... ni behintzat oso pozik nago, gaurkoan askak batekin natorkizuelako. Izan ere, askak oso jolas dibertigarriak dira, eta gainera musikarekin batera egiten baditugu, are eta dibertigarriago! Zuek ere nirekin ongi pasa nahi baduzue, has gaitezten!
- Ea ba, ea askak nork asmatzen duen:

“Kolore askotakoa izan daiteke.

Luzea, motza, kizkurra, leuna... mota askotakoak daude.

Batzuek dagoeneko ez daukate eta beste batzuek ordea moztu egiten dute, eta ... gure buru gainean egoten da. Zer ote da???”

3.3. ORPO-PUNTA (mugimendu bidez)

- Kaixo lagunok, zer moduz zaudete? Aizueee, ba al dakizue zein den abestearen ondoren gehien gustatzen zaidan gauza? Lagunekin dantzatzea! Izan ere, jolasteko modu asko bait daude, eta musikarekin dantzatzea oso

jolas dibertigarria izan daiteke. Horregatik, niri abestea eta dantzatzea asko gustatzen zaidanez, zuek ere nirekin jolastea nahiko nuke. Gainera abesti honekin gorputzeko beste atal batzuk ere ezagutuko ditugu, eta ondo pasatuz ikastea primerako da! Aurrera!

- Gaurkoan gure oinak izango dira erabiliko dugun gorputzeko atala. Badakizue, hanketatik beherantz... oinak! Eta oso garrantzitsuak txiki txikitan katuka ibiltzen baldin bagara ere, gero oinen gainen ibiltzen garelako.

Ibil gaitezen gure inguruan...

Orain egin dezagun salto!

Eta dantza egiten badugu?

Konturako zineten bezala gure oinek orpoa eta punta dituzte eta horien gainean arituko gara dantzan. Probatu dezagun: orpoa, punta, orpoa, punta...

3.4. BESOAK SORBALDAK (aurretiazko ezagutzen inguruan galdetuz)

- Kaixo! Hemen berriro Tximu, zuen laguna! Gorputzeko atalak musikaren bidez ezagutzea primerakoa da, horrela ikasteaz gain ongi pasatzen dugulako, eta gainera niri izugarri gustatzen zaizkidan bi gauza egin ditzakegulako, abestu eta dantzatu!

- Ikus dezagun denok ezagutzen ote ditugun gorputzeko atal hauek:

Oinaaaaak

Hankaaaaak

Ipuuurdia

Tripaaa

Buruaaa

Aurpegiaaaa

Ileaaaaa

Bainaaa... bidean ez al dugu baten bat ahaztu? Ea baaa... Buruaren azpian bi sorbalda ditugu, eta sorbalda horietatik behera bi beso luuuuze... eta besoen amaieran??? Baiii, eskuak!

Sorbaldak, besoak, eskuak, hatzak

Sorbaldak, besoak, eskuak, hatzak

Eta nola ez, ondoren egingo den jardueraren arabera, gure entzumenari buruz eta horretarako beharrezkoak diren gorputzeko atalei buruz hitz egin dezakegu.

C. GAUZATZE-FASEA

Haurrek proposatzen den gaiaren inguruan dituzten aurretiazko ezagutzak aztertu ondoren, landu nahi direnak musikaren bidez modu dibertigarrian

aurkeztuko ditugu. Horretarako, azpigai bakoitzean metodologia berdina izango da:

- Abestia adi entzun
- Abestia entzun eta ikasten saiatu
- Abestia ikasitakoan denok elkarrekin abestu edo beste behin entzun

7.3. VERDI

- Kaixo, lagun maiteok, prest al zaudete musika eder-ederra entzuteko? Izan ere, dakizuen bezala entzunaldiak egitea oso gustuko dut. Ziur zuei ere asko gustatzen zaizuela musika polita entzunez gauza berriak ikastea. Gaurkoan zuekin guztiokin... Giuseppe Verdiren "*Brindisi*"!
- Brindisa *La Traviata* operaren lehenengo ekitaldiko bigarren zenbakia da, bals dantzagarriaren erritmoa duena. Alfredo izeneko pertsonaia da brindisa hasten duena, Violeta izenekoak jarraitzen dio eta jarraian abesbatzak hartzen du garrantzia. Ondoren bi bakarlariak berriro elkarrekin abesbatzarekin batera... Entzun dezagun adi, adi...

(entzun abestia 1)

- Zein abesti alai!; izan ere ez dizuet esan, baina... jakizue obra hau mahai inguruan bazkal osterako egin zela, eta horregatik ari dira abeslariak hain giro alai eta lasaian abesten. Zuek ere arretaz entzuten baduzue, abestia nola dagoen antolatua ikusi ahal izango duzue: Alde batetik orkestra, bestetik abesbatza, baita bakarlariak ere... Entzun dezagun abestia berriro horiek denak antzematen ote ditugun jakiteko. Zuek duzuen musikari-sen horrekin adi entzunez gero ziur antzemango dituzuela zatiak. Aurrera!

(entzun abestia 2)

- Dagoeneko abestia arretaz entzun dugu eta... orain jolasteko garaia da! Horretarako, hiru elementurekin jolastuko gara:
 - 1.- Gizonezko bakarlaria, tenorea, Alfredo izena duena (irudia?)
 - 2.- Emakume bakarlaria, sopranoa, Violeta izeneko (irudia?)
 - 3.- Abesbatza (irudia?)

Hiru gelakide hiru aulkitan banatuko dira. Lehenengoa tenorea izango da, bigarrena sopranoa eta hirugarrena abesbatza. Gainerako gelakideak aurrean eseri biribil erdian, eta orkestra izango dira. Pertsonaia bakoitzeko txartelak ikusiko dituzue. Musika entzun bezain laster abesten ari denaren txartela atera, eta dagokion haurrari emango dio, biak (hezitzailea eta haurra) elkarrekin dantzatuko dira abestiaren erritmoan. Probatu dezagun!

(entzun abestia 3)

- Gustatu al zaizue jolasa? Orain txandaka jolastu zaitezke, edo are hobeagoa dena, 3 taldetan banatu zaitezke denok jolastu eta dantzatzeko!

Gainera irudiak gelan jarri eta denek ikusi dezaketen leku batean zintzilikatuko ditzakezue.

D. AMAIERA-FASEA

Saioan zehar egin den lan espezifikoa ikasleak arretaz entzuten izan badira ere, dantzan eta jolasean aritu direla kontuan izanda, saio honen amaiera-faserako "Erlaxapena" jarduera hautu egokia izan daiteke. Kasu honetan "*Loa Loa*" abestia hartuta, haurrak bakarka beren lekutxoa bilatu eta erlaxatzera bideratuko ditugu:

1.- LOA, LOA TXUNTXURRUN BERDE

VO: Kaixo!!! Ziur nago eguna hara eta hona, ekintza pilaz beterik izaten ari garela, lagunok. Zenbat gauza desberdin egin ditugun gaur... eta zein ongi ari garen pasatzen gainera! Baina nik uste dut pixka bat lasaitu eta erlaxatzeko ordua iritsi zaigula.

VO: Egitera goazena etxean ohera sartu eta abesti bat entzun edo melodia eder bat abesten digutenean bezalakoa da. Erlaxatu gaitzen... bilatu dezagun gelan lekutxo bat lasai egoteko, etzan gaitzen eta entzun dezagun lasai, lasai abesti polit hau.

VO: Zuetako asko konturatuko zineten: bai, guraso askok beren seme-alabei lotara doazenean abesten dieten abesti bat da, "*Loa, Loa Txuntxurrun Berde*". Baina kontuz eee, ezazue lo hartu ...

VO: Ea ba, zuen lekutxora joan eta presta zaitetzte, musika laster hastera doa eta ... 3,2,1... itxi itzazue begiak, lasai, eta erlaxa gaitzen...

E. EBALUAZIO-FASEA

Jarduera hauen guztien ebaluazio-irizpide nagusia haurren parte-hartzea da, eta horrekin batera ekintzaren arrakasta. Izan ere, haurrek abestiak abestu, eskatzen diren keinuak egin eta horrez gain ongi pasatzen badute, helburu garrantzitsuena lortuko dugu.

Garrantzitsua izango da, era berean, garatu nahi ditugun kompetentziak lantzen ote ditugun aztertzea. Hala nola elkarrekin zein bakarka lanean aritu diren ikustea (Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia), norbanako moduan zein taldean egoki komunikatu diren aztertzea (Komunikazio linguistiko eta

literariorako konpetentzia) edota barruan duten artista txikia azalarazi duten ikustea (Kultura humanistikoan eta artistikoan konpetentzia, mugimendurako konpetentzia).

Ezin ahaztuko ditugu azkenik, jarduera horientzat jarri ditugun helburu didaktikoak. Horiei erantzuna bilatzeko, galdera hauek egin ditzakegu:

- ✓ Ongi aritu al dira bakarka zein taldeka?
- ✓ Psikomotrizitatea landu al dugu?
- ✓ Lortu al dugu haur bakoitzak barruan duen artista azaleratzea?
- ✓ Lortu al dugu 3. gaian landu nahi ziren gorputzeko atalak hobeto ezagutu eta lantzea?

BALIABIDEAK

Proposatzen diren saioak eta jarduerak pentsatuta daude baliabide urriko geletan egingarriak izan daitezen. Hala ere, beti izango da egokiagoa haurrentzat proposatutako ekintzak inguru erosoan egitea. Egokiak izango dira horretarako musika gela zabalak eta mugimendu askeak egitea ahalbidetuko dutenak.

Baliabide teknikoek dagokienez, gomendagarriak dira:

- ✓ Ordenagailua
- ✓ Soinu-ekipoa
- ✓ Proiektatzeko-kainoia
- ✓ Proiektatzeko pantaila